OIARTZUNGO
UDALA

OIARTZUNGO UDALHERRIKO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIA BIDEZ.

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA -

ESPEDIENTE KODEA:	2021KO02020001

KARATULA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

OIARTZUNGO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUA- KONTRATATZEA.

CPV-08 kodea: 85320000-8 (Zerbitzu Sozialak).

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:
Irekia. Lizitazio elektronikoa

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:
Ohiko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren ondorioetarako, ondorengo gehieneko prezio unitarioak ezartzen dira, zeinari buruz lizitatzaileek euren eskaintza ekonomikoak egin beharko dituzten:

BANAKAKO PSIKOLOGOA/ TERAPEUTA		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
45,43 €	4,54 €	**49,97 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

FAMILIA PSIKOLOGOA/TERAPEUTA		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
52,42 €	5,24 €	**57,66 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA ETA KOORDINAZIO BILERAK		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
29,17 €	2,92 €	**32,09 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintzak egin ditzakete, bestelako kopuru zehatz batzuk proposatuz.

Interesatuek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

AURREIKUSITAKO URTEKO GEHIENEKO AURREKONTUA:

SPKLren 33 Xedapen Gehigarriari jarriki, esku hartze kopurua Udalaren beharren araberakoa izango da. Ondorioz jarraian adierazitako aurrekontua gehienezkoa da, lizitatzaileek beraien eskaintza ekonomikoak prestatu ahal izateko, aitzitik, ez du inolaz ere udala kopuru oso hori ordaintzera behartzen, Udalak benetan eskatzen dituen zerbitzuak soilik ordainduko ditu:

- Aurreikusitako gehieneko aurrekontua (BEZik gabe): 72.727,84.- euro
- BEZa (%10ekoa): 7.272,78.- euro
- Zenbateko osoa: **80.000,62.- euro** (%10eko BEZa barne).

SPKLeko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, **lizitaziorako aurreikusitako urteko gehieneko aurrekontuaren banakapena** honako hau da:

- **Zuzeneko kostea:**

Kontratu honetan nabarmentzekoa da langileen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta dagoela, izan ere, esku-hartzea profesionalen esku utziko da, eta horien soldata eta gizarte segurantzako kostea izango da zerbitzuaren koste osoaren zati garrantzitsuena.

Kasu honetan, aplikagarria da Esku Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako II Lan Hitzarmena.

- Psikologoa edo familia terapeuta (1. taldea): Urteko ordainsaria, lan hitzarmenaren arabera, 33.025,68 eurokoa du (6 hirurteko antzinatasuna erreferentziatzat hartuta eta erantzukizunagatiko osagarria barne). Kontuan izan dugu terapia prestatu, disenatu, ebaluazioa, erregistroa eta txostenak egiteko denbora behar dela (%30ekoa)

BANAKAKO PSIKOTERAPIA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
29,63 €	9,72 €	39,35 € kostea orduko

Familia terapia denean honako kostea aurreikusi da. Kontuan izan dugu terapia prestatu, disenatu, ebaluazioa, erregistroa eta txostenak egiteko denbora behar dela (%50ekoa):

FAMILIAKO PSIKOTERAPIA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
34,19 €	11,21 €	45,40 € kostea orduko

- Hezitzailea (2. taldea): Urteko ordainsaria, lan hitzarmenaren arabera, 30295,46 eurokoa du (6 hirurteko antzinatasuna erreferentziatzat hartuta eta erantzukizunagatiko osagarririk gabe).

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
19,03 €	6,24 €	25,2 € kostea orduko

Beraz, Gipuzkoako lurraldeko lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsi dira ordainsari-kostuak lanbide-kategoriaren arabera, ez ordea, generoaren ikuspegitik esleitu nahi den zerbitzu kontratua berria baita. Lan hitzarmenak taldeka sailkatzen ditu ordainsariak erantzukizunagatiko osagarria izan ezik. Osagarri hau 32. artikuluan aurreikusten da: "*Honek Ardurak dituzten edo eginkizunen araberako erantzukizun karguak betetzen dituzten langileek, betiere erantzuizun horiek finkagarriak ez badira, eginkizuna bete behar duen lanpostuan egiaz jarduera betetzen ematen duen denboraldian, eginkizunagatiko edo erantzukizunagatiko osagarri ekonomikoa jasoko dute.*

Erantzukizunagatiko osagarri ekonomikoak eranskinean bildutakoak izango dira.

Pertsona batek erantzukizunagatiko osagarri bat baino gehiago jaso tzeko aukera badu, eginkizun-plus handienari dagokiona soilik jasoko du…"

Balizko enpresa kontratistak osagarri hau ordainduko balu berdintasun printzipioa errespetatu behar du, eta udal honek hala egingo duela ikuskatuko du.

- **Zeharkako kostea:**

  - Enpresaren etekina: %6.
  - Ordezkapenak %3.
  - Kudeaketa: %3.
  - Profesionalen beste gastu batzuk: %5.
  - BEZ: %10ekoa.

Zuzeneko kostea lan orduka kalkulatua izan denez, zeharkakoa ere horrela egin da.

Beraz, orduko koste zuzena eta zeharkakoa guztira honako hau da:

BANAKAKO PSIKOLOGOA/ TERAPEUTA		
ZUZENEKO KOSTOA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
39,35 €	10,62 €	49,97 € kostea orduko

FAMILIA PSIKOLOGOA/TERAPEUTA		
ZUZENEKO KOSTOA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
45,40 €	12,26 €	57,66 € kostea orduko

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA ETA KOORDINAZIO BILERAK		
ZUZENEKO KOSTEA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
25,27 €	6,82 €	32,09 € kostea orduko

Gutxi gorabehera, urteko honako ordu hauek aurreikusi dira:

EGITEKOA	ORDU KOPURUA	PREZIOA	GUZTIRA
Txostenak, koordinazioa eta bilerak (psikologoa edo terapeutarekin) eta laguntza eta orientazio teknikoa ematea	256 ordu	49,97 €	12.792,32 €
Saio terapeutikoak (12 saio familia bakoitzeko)	192 ordu	49,97 €	9.594,24 €
Familia terapeuta (12 saio familia bakoitzeko)	192 ordu	57,66 €	11.070,72 €
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (88 ordu familia bakoitzeko eta lan eta koordinazio bilerak 42,4 ordu)	1.450,40 ordu	32,09 €	46.543,33 €
GUZTIRA			**80.000,62.- € / urteko (%10eko BEZa barne)**

Udalak bulego bat jarriko du enpresa esleipendunaren talde profesionalaren eskura, kontratuaren xede den psikoterapia jarduera garatzeko. Bulego hori ez da enpresak bakarrik erabiltzeko izango. Honi dagokionez, udalaren kontu izango dira argi-horniduraren eta ur-horniduraren gastuak, baina ez telefono-horniduraren. Enpresa esleipendunak Udalak bere esku jarritako lokala eta baliabideak behar bezala kudeatu eta erabili beharko ditu.

Enpresa esleipendunaren kontu dira:

- Zerbitzuaren prestazio egokia bermatzen duten ekipo eta programa informatikoak.

Zerbitzura zuzenki edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta gizarte zerbitzuetako departamentuko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta kontrolerako baliabide teknikoak (besteak beste, langileentzat mugikorrak eta posta elektronikoa).

- Zerbitzu honen enpresa esleituak, erabiltzaileei arreta zuzena emateko beharrezko diren beste material eta zerbitzuen gastuak bere gain hartu beharko ditu, profesionalaren garraio gastuak barne.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA: 349.093,63.- eurokoa da, (BEZa gabe).

Honako kopuru hauetan banatuak:

- Hasierako iraupena: 145.455,68.-euro (bi urte)
- Aurreikusitako luzapenak: 145.455,68.- euro (bi luzapen)
- Kontratuaren aldaketak: 58.182,27.-euro (%20)

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:

BI (2) URTE kontratua sinatzen denetik eta urte naturaletan luzatu ahal izango da, kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du **LAU (4) urte** baino handiagoa izan.

6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:
Ez da eskatzen.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA:
Esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZik gabe.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
20 egun natural, Kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus)en iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

9.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:
Oiartzungo Udaleko Kontratazio Profilean www.oiartzun.eus- en

10.- ALDAERAK
Ez dira onartzen.

11.- KAUDIMENA:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honako hautakoren baten bidez:

- Lizitatzailearen **kontratatu nahi den eremuari (arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako esku-hartze sozioedukatiboko edo psikosozialeko zerbitzuan) dagokion urteko negozio bolumena** azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, **30.000 euro edo handiagokoa** izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

Kaudimen tekniko edo profesionala ondorengo agiriekin egiaztatuko beharko da:

- **Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren (arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako esku-hartze sozio edukatiboko edo psikosozialeko zerbitzuan) izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda**, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Kontratazio organuaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa **30.000.- euro** kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

Erregulazio harmonizatua bete behar ez duten kontratuetan, **kontratista enpresa berria baldin bada**, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, SPKLren 90.4 artikuluan arautzen dena ezarriko da.

KAUDIMEN GEHIGARRIA

Kontratuari atxikitzea, nahitaez, honako giza baliabide hauek:

1.1.- **Psikologo bat,** lan terapeutikoaz gain, taldea koordinatzen duena. Bete beharreko baldintzak:

- Psikologiako lizentziatura edo gradua, eta Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatea.
- Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia familian esku hartzen.

1.2.- **Hezitzaile bat.** Bete beharreko baldintzak:

- Gizarte-hezkuntzako, gizarte-laneko edo antzeko beste titulazio bateko diplomatura edo gradua
- Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, heziketa lanetan gutxienez urte beteko esperientzia izan behar du.

Honako baldintza hauek beteko dituzte kontratura atxikituko diren langileak:

- Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa (Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita dauden eta adingabeekin harremanetan dauden langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekarien ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko dira.

- Profesional hauei Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eskatuko zaie, klausula administratiboen pleguan jasotzen denari jarraiki (hizkuntza irizpideetan 16. klausulan).

- Psikoterapiako saioak udal-bulegotan emateko konpromisua hartzea; eta esku-hartze sozio-hezitzailerako saioak esku-hartzen ari den familiaren etxebizitzan egiteko konpromisua hartzea, edo hala badagokio, kalean edo une bakoitzean egokiena den lekuan, esku-hartzearen helburuei jarraiki.

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

- **Irizpide automatikoak (49 puntu arte):** Eskaintza ekonomikoa eta Langileen prestakuntza gehigarria.

- **Irizpide ez automatikoak (51 puntu arte):** Memoria Teknikoa.

13.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Izaera hau daukate: 16. Klausulan ezarriak.

- Bete beharreko gutxieneko lan-baldintzei buruzko klausula soziala.
- Bete beharreko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagozkionak.
- Bete beharreko Hizkuntza Baldintzak.
- Ezarritako zerbitzua emateko bete beharreko ingurumen-irizpideak.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea OIARTZUNGO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUA ematea izango da, baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz, hauek kontratu balioa dutelarik.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 85320000-8 (Zerbitzu Sozialak).

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du.

Kontratu honen xedea ez da loteetan zatitzea, baliozko arrazoiak bait daude, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituta, espedienteari erantsitako txosten teknikoaren azaltzen den moduan.

3.- Ez da onartuko eskaintza alternatiborik.

2. EXEKUZIO EPEA

1.- Agiri honetan aipatzen den kontratuaren iraupen osoa **BI (2) URTEKOA** izango da kontratua sinatzen denetik, urte naturaletan luzatu ahal izango dena, eta kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne, ezingo du **LAU (4) urte** baino handiagoa izan.

Luzapena Kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat nahita nahiezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baina bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, luzapena berariaz adostu behar da.

2.- Enpresa kontratatua berandutze egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta administrazioaren aldetik ez da beharrezkoa izango aurrez ohartaraztea.

3.- Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren

gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.

3. AURREKONTUA - LIZITAZIO TIPOA

Lizitazioaren ondorioetarako, ondorengo **gehieneko prezio unitarioak** ezartzen dira, zeinari buruz lizitatzaileek euren eskaintza ekonomikoak egin beharko dituzten:

BANAKAKO PSIKOLOGOA/ TERAPEUTA		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
45,43 €	4,54 €	**49,97 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

FAMILIA PSIKOLOGOA/TERAPEUTA		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
52,42 €	5,24 €	**57,66 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA ETA KOORDINAZIO BILERAK		
PREZIOA	**%10eko BEZa**	**PREZIO OSOA**
29,17 €	2,92 €	**32,09 € / orduko** (%10eko BEZa barne)

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Interesatuek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

AURREIKUSITAKO URTEKO GEHIENEKO AURREKONTUA:

SPKLren 33 Xedapen Gehigarriari jarriki, esku hartze kopurua Udalaren beharren araberakoa izango da. Ondorioz jarraian adierazitako aurrekontua gehienezkoa da, lizitatzaileek beraien eskaintza ekonomikoak prestatu ahal izateko, aitzitik, ez du inolaz

ere udala kopuru oso hori ordaintzera behartzen, Udalak benetan eskatzen dituen zerbitzuak soilik ordainduko ditu:

- Aurreikusitako gehieneko aurrekontua (BEZik gabe): 72.727,84.- euro
- BEZa (%10ekoa): 7.272,78.- euro.
- Zenbateko osoa: **80.000,62.- euro** (%10eko BEZa barne).

SPKLeko 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, **lizitaziorako aurreikusitako urteko gehieneko aurrekontuaren banakapena** honako hau da:

- **Zuzeneko kostea:**

Kontratu honetan nabarmentzekoa da langileen ordainsarien kostua kontratuaren guztizko prezioan sartuta dagoela, izan ere, esku-hartzea profesionalen esku utziko da, eta horien soldata eta gizarte segurantzako kostea izango da zerbitzuaren koste osoaren zati garrantzitsuena.

Kasu honetan, aplikagarria da Esku Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako II Lan Hitzarmena.

- Psikologoa edo familia terapeuta (1. taldea): Urteko ordainsaria, lan hitzarmenaren arabera, 33.025,68 eurokoa du (6 hirurteko antzinatasuna erreferentziatzat hartuta eta erantzukizunagatiko osagarria barne). Kontuan izan dugu terapia prestatu, disenatu, ebaluazioa, erregistroa eta txostenak egiteko denbora behar dela (%30ekoa)

BANAKAKO PSIKOTERAPIA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
29,63 €	9,72 €	39,35 € kostea orduko

Familia terapia denean honako kostea aurreikusi da. Kontuan izan dugu terapia prestatu, disenatu, ebaluazioa, erregistroa eta txostenak egiteko denbora behar dela (%50ekoa):

FAMILIAKO PSIKOTERAPIA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
34,19 €	11,21 €	45,40 € kostea orduko

- Hezitzailea (2. taldea): Urteko ordainsaria, lan hitzarmenaren arabera, 30295,46 eurokoa du (6 hirurteko antzinatasuna erreferentziatzat hartuta

eta erantzukizunagatiko osagarririk gabe).

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA		
SOLDATA ORDUKO	**GIZARTE SEGURANTZA**	**KOSTE OSOA**
19,03 €	6,24 €	25,2 € kostea orduko

Beraz, Gipuzkoako lurraldeko lan-hitzarmenaren arabera zenbatetsi dira ordainsari-kostuak lanbide-kategoriaren arabera, ez ordea, generoaren ikuspegitik esleitu nahi den zerbitzu kontratua berria baita. Lan hitzarmenak taldeka sailkatzen ditu ordainsariak erantzukizunagatiko osagarria izan ezik. Osagarri hau 32. artikuluan aurreikusten da: "*Honek Ardurak dituzten edo eginkizunen araberako erantzukizun karguak betetzen dituzten langileek, betiere erantzuizun horiek finkagarriak ez badira, eginkizuna bete behar duen lanpostuan egiaz jarduera betetzen ematen duen denboraldian, eginkizunagatiko edo erantzukizunagatiko osagarri ekonomikoa jasoko dute.*

Erantzukizunagatiko osagarri ekonomikoak eranskinean bildutakoak izango dira.

Pertsona batek erantzukizunagatiko osagarri bat baino gehiago jaso tzeko aukera badu, eginkizun-plus handienari dagokiona soilik jasoko du…"

Balizko enpresa kontratistak osagarri hau ordainduko balu berdintasun printzipioa errespetatu behar du, eta udal honek hala egingo duela ikuskatuko du.

- **Zeharkako kostea:**

  - Enpresaren etekina: %6.
  - Ordezkapenak %3.
  - Kudeaketa: %3.
  - Profesionalen beste gastu batzuk: %5.
  - BEZ: %10ekoa.

Zuzeneko kostea lan orduka kalkulatua izan denez, zeharkakoa ere horrela egin da.

Beraz, orduko koste zuzena eta zeharkakoa guztira honako hau da:

BANAKAKO PSIKOLOGOA/ TERAPEUTA		
ZUZENEKO KOSTEA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
39,35 €	10,62 €	49,97 € kostea orduko

FAMILIA PSIKOLOGOA/TERAPEUTA		
ZUZENEKO KOSTEA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
45,40 €	12,26 €	57,66 € kostea orduko

HEZITZAILEAREN ESKU HARTZEA ETA KOORDINAZIO BILERAK		
ZUZENEKO KOSTEA	**ZEHARKAKO KOSTEA**	**KOSTE OSOA**
25,27 €	6,82 €	32,09 € kostea orduko

Gutxi gorabehera, urteko honako ordu hauek aurreikusi dira:

EGITEKOA	ORDU KOPURUA	PREZIOA	GUZTIRA
Txostenak, koordinazioa eta bilerak (psikologoa edo terapeutarekin) eta laguntza eta orientazio teknikoa ematea	256 ordu	49,97 €	12.792,32 €
Saio terapeutikoak (12 saio familia bakoitzeko)	192 ordu	49,97 €	9.594,24 €
Familia terapeuta (12 saio familia bakoitzeko)	192 ordu	57,66 €	11.070,72 €
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea (88 ordu familia bakoitzeko eta lan eta koordinazio bilerak 42,4 ordu)	1.450,40 ordu	32,09 €	46.543,33 €
GUZTIRA			**80.000,62.- € /urteko (%10eko BEZa barne)**

Udalak bulego bat jarriko du enpresa esleipendunaren talde profesionalaren eskura, kontratuaren xede den psikoterapia jarduera garatzeko. Bulego hori ez da enpresak bakarrik erabiltzeko izango. Honi dagokionez, udalaren kontu izango dira argi-horniduraren eta ur-horniduraren gastuak, baina ez telefono-hornidurarenak. Enpresa esleipendunak Udalak bere esku jarritako lokala eta baliabideak behar bezala kudeatu eta erabili beharko ditu.

Enpresa esleipendunaren kontu dira:

- Zerbitzuaren prestazio egokia bermatzen duten ekipo eta programa informatikoak.

  Zerbitzura zuzenki edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta gizarte zerbitzuetako departamentuko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta kontrolerako baliabide teknikoak (besteak beste, langileentzat mugikorrak eta posta elektronikoa).

- Zerbitzu honen enpresa esleituak, erabiltzaileei arreta zuzena emateko beharrezko diren beste material eta zerbitzuen gastuak bere gain hartu beharko ditu, profesionalaren garraio gastuak barne.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

Kontratuaren gehienezko balio zenbatetsia, BEZ gabe: **349.093,63 euroko da.** Kontratuaren iraunaldia aurreikusten diren luzapenak eta kontratu aldaketak kontuan hartuta.

Honako kopuru hauetan banatuak:

- Hasierako iraupena: 145.455,68.-euro (bi urte)
- Aurreikusitako luzapenak: 145.455,68.- euro (bi luzapen)
- Kontratuaren aldaketak: 58.182,27.-euro (%20)

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo (2021) ekitaldiko aurrekontuan ondorengo partidan:

1 1001.226.231.0096.2021 A-182/2021 Familien tratamenduak

Halaber, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINTZEKO MODUA

1.- Kontratuaren prezioaren ordainketa benetan egindako lanei dagozkien hileroko ordainketa bidez egingo da. Aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori zerbitzuaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko du, eta hala badagokio, organo eskudunak onartuko du. Halaber, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki beharko ditu.

Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

2.- Era berean, fakturarekin batera, langileen nominak eta gizarte-segurantza ordaindu direlako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu (kasuan-kasuko bankuak zigilatutako nominak, TC1 eta TC2 orriak eta kontratatutako pertsonen zerrenda sexu arabera bereizita). Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian agertzeagatiko ziurtagiri negatiboa (Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 42. artikuluan aipatzen den ziurtagiria). Halaber, kontratazio-organoak agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, enpresa esleipendunak betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honen xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da prezioaren berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

- Behin-behineko bermea.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

- Behin-betiko bermea.- Kontratu honen lizitazioan proposamen ekonomikorik onuragarriena aurkezten duen eskaintzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko

dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZik gabe.

Berme hori jartzeko epea 10 lanegunekoa izango da, kontratua esleitu dela jakinarazi den egunaren biharamunetik hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura irekia bidez egingo da, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

Kontratu hau esleituko da esleipen irizpide ugari erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenaren arabera.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko:

A. AUTOMATIKOKI BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK. 49 puntu.
("C" ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartzeko)

1.- Prezioa : (0-45 puntu).

- **"Banakako terapiaren" proposamen ekonomikoa: 15 puntu, gehienez.**

Prezio murrizketa handiena eskaintzen duen proposamenari 15 puntu emango zaizkio, prezioan murrizketarik egiten ez duen proposamenari 0 puntu emango zaizkio

eta azkenik, gainontzeko proposamenei puntuak proportzionalki emango zaizkie, prezioan eginiko murrizketaren arabera. Formula honen arabera:

$$\text{X eskaintzaren puntuak} = \frac{\text{Eskaintza ekonomikoena x 15}}{\text{X eskaintza}}$$

- **"Familia-terapiaren" proposamen ekonomikoa: 20 puntu, gehienez.**

Prezio murrizketa handiena eskaintzen duen proposamenari 20 puntu emango zaizkio, prezioan murrizketarik egiten ez duen proposamenari 0 puntu emango zaizkio eta azkenik, gainontzeko proposamenei puntuak proportzionalki emango zaizkie, prezioan eginiko murrizketaren arabera. Formula honen arabera:

$$\text{X eskaintzaren puntuak} = \frac{\text{Eskaintza ekonomikoena x 20}}{\text{X eskaintza}}$$

- **"Hezitzaileen" proposamen ekonomikoa: 10 puntu, gehienez.**

Prezio murrizketa handiena eskaintzen duen proposamenari 10 puntu emango zaizkio, prezioan murrizketarik egiten ez duen proposamenari 0 puntu emango zaizkio eta azkenik, gainontzeko proposamenei puntuak proportzionalki emango zaizkie, prezioan eginiko murrizketaren arabera. Formula honen arabera:

$$\text{X eskaintzaren puntuak} = \frac{\text{Eskaintza ekonomikoena x 10}}{\text{X eskaintza}}$$

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak ere. Eta SPKLren 149. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2.- <u>Lantaldearen prestakuntza: (0- 4 puntu)</u>

Enpresako taldearen prestakuntza, gutxienez, lantaldeko batek:

- Gutxienez 50 orduko prestakuntza adin txikikoen eta haren familien esku-hartzean genero ikuspegitik: 2 puntu.
- Gutxienez 50 orduko prestakuntza adin txikikoen eta haren familien

esku-hartzean aniztasunaren ikuspegitik: 2 puntu.

Kontratu honen esleipenduna izatera iristen den enpresak soilik egiaztatu beharko du atal hau udalak errekeritzen dion momentuan.

B. <u>BALIO JUDIZIOA EGIN BEHARRA DAKARTEN IRIZPIDEAK</u>. 51 puntu. ("B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartzeko)

1.- <u>Memoria teknikoa (0-51 puntu):</u>

Honako alderdiak baloratuko dira:

- Zerbitzuaren xedeari erantzungo dion erreferentzia-eredu teorikoa: **3 puntu, gehienez.**
- Nerabezaroan arrisku- edo zaurgarritasun-egoerak garaiz detektatzeko proposamena: **12 puntu, gehienez.**
- Diagnostikoaren, esku-hartzearen eta ebaluazioaren faseen proposamena: **15 puntu, gehienez.**
- Laneko metodologia, interbentzioan baliatuko diren lanabesak eta adierazleak: **12 puntu, gehienez.**
- Proposatutako ebaluazio eredua: **5 puntu, gehienez.**
- Gogobetetze-galdetegien ereduak, familiei eta sareko lanean parte hartzen duten profesionalei zuzendutako zerbitzua baloratzeko: **4 puntu, gehienez.**

Aurkezten den gehieneko dokumentazioa (azalak edo aurkibideak kontuan hartu gabe), 30 orritakoa izango da, DIN A-4 formatuan eta marjina hauek errespetatuz:

- Goikoa eta behekoa: 2,5 cm goian; 2 cm behean.
- Ezker-eskuinekoa: ezkerrekoa 2,5 cm; eskuinekoa 1,5 cm.
- Letra mota eta neurria: Arial edo Times New Roman 11.
- Lerroartea: 15 puntu

Agiri honetan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо. Gehieneko azalera gaindituz gero, edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

Irizpide hauen batuketaren balorazioan (memoria teknikoa) gutxienez 25 puntu lortzea beharrezkoa izango da lizitazioan jarraitzeko.

Esleipendun suertatzen den lizitatzaileak egindako eskaintza, bere osotasunean, kontratuaren edukira sartuko da, eta plegu honekiko hobekuntza suposatzen duen guztia,

nahitaez bete beharrekoa izango da.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNAREN EGIAZTATZEA

1.- Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

2.- Gainera, enpresariek kontratu honen jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eskatu daitekeen habilitazio enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

5.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

6.- KAUDIMENA

Lizitatzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokionez ondoren zehazten diren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa egiaztatu beharko du, plegu honen 13. klausulan ezarritakoaren arabera.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honako hautakoren baten bidez:

- Lizitatzailearen **kontratatu nahi den eremuari (arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako esku-hartze sozioedukatiboko edo psikosozialeko zerbitzuan) dagokion urteko negozio bolumena** azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, **30.000 euro edo handiagokoa** izan behar du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

Kaudimen tekniko edo profesionala ondorengo agiriekin egiaztatuko beharko da:

- **Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren (arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako esku-hartze sozio edukatiboko edo psikosozialeko zerbitzuan) izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda**, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Kontratazio organoaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 30.000.- euro kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua

kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

Erregulazio harmonizatua bete behar ez duten kontratuetan, **kontratista enpresa berria baldin bada**, halakotzat hartuta bost urtetik behera dituena, SPKLren 90.4 artikuluan arautzen dena ezarriko da.

KAUDIMEN GEHIGARRIA

Kontratuari atxikitzea, nahitaez, honako giza baliabide hauek:

1.1.- **Psikologo bat,** lan terapeutikoaz gain, taldea koordinatzen duena. Bete beharreko baldintzak:

- Psikologiako lizentziatura edo gradua, eta Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatea.
- Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia familian esku hartzen.

1.2.- **Hezitzaile bat.** Bete beharreko baldintzak:

- Gizarte-hezkuntzako, gizarte-laneko edo antzeko beste titulazio bateko diplomatura edo gradua
- Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, heziketa lanetan gutxienez urte beteko esperientzia izan behar du.

Honako baldintza hauek beteko dituzte kontratura atxikituko diren langileak:

- Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa (Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita dauden eta adingabeekin harremanetan dauden langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekarien ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko dira.

- Profesional hauei Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eskatuko zaie, klausula administratiboen pleguan jasotzen denari jarraiki (hizkuntza irizpideetan 16. atalean).

- Psikoterapiako saioak udal-bulegotan emateko konpromisua hartzea; eta esku-hartze sozio-hezitzailerako saioak esku-hartzen ari den familiaren etxebizitzan

egiteko konpromisua hartzea, edo hala badagokio, kalean edo une bakoitzean egokiena den lekuan, esku-hartzearen helburuei jarraiki.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Oiartzungo Udaleko Idazkaritza Sailaren Kontratazio Unitatean, aztertu ahal izango da, bulego orduetan, lanegunetan (larunbatean izan ezik), Kontratatzailearen Profilean argitaratzen denetik, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke perfilaren bidez.

Epea: Lizitatzaileak beren eskaintzak aurkeztu beharko dituzte **Kontratatzailearen profilean** (**www.oiartzun.eus**)en iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean aurkeztu beharko dituzte.**

2.- Proposamenak www.contratación.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza-agiri honetako **III. Eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula honetan adierazitako atalak, horietan adierazten baita A, B eta C artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira: horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

11. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOA “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziorako Agiri Europar Bakarra (DEUC) ereduaren arabera.**

DEUCen galdetegi normalizatua elektronikoki betetzeko eskuragarri dago honako web helbide honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Era berean, lizitatzaileek DEUC dokumentua bete ahal izateko, Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean erabilgarri dago XML formatua inportatzeko.

Lizitatzaileek II, III, IV. eta VI. atala bakarrik bete behar dituzte. Ondorio horietarako, Estatuko Ondare Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasotako orientabideak jarraitu behar dituzte, haren bidez argitaratu baita Kontratazio publikorako Zuzentarau berrian (2016ko apirilaren 8ko EAOn argitaratua) aurreikusitako Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruzko Kontratazio Administratiboaren Kontsultarako Batzordearen Gomendioa.

Lizitatzaileek ez dute beren azpikontratista izan daitezkeenak baztertzeko arrazoiei buruzko informazioa emateko obligaziorik.

Enpresa lizitatzaileak eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du esleipendun gisa proposatuz gero edo horretarako eskaera eginez gero (prozeduraren edozein unetan haren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean).

* Aldibaterako Enpresen Elkartea (AEE):
Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta kontrataziorako agiri europar bakarreko galdetegian kasu horietarako eskatutako informazioa emango da bertan.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLen 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera osatzeko konpromisoa aurkeztuko da (AEEko partaide guztiek sinatutako idatzia).

**Atzerriko enpresak:
Atzerriko enpresek, SPKLen 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.

Erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren

pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko.

Epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

- **Ardurapeko adierazpena (II Eranskina). Plegu honen 10. klausulan (kaudimen gehigarria) adierazten diren profilekin eta zehaztapenekin, kontratua betetzeko bitarteko (giza baliabide) adskribatzeko konpromisoa (SPKLren 76.2 artikuluaren arabera).**

- **Helbide elektroniko gaitu bat jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, kontratazio prozedura honetatik sortuak, baliabide elektroniko bidez.**

"B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "BALIO JUDIZIO BIDEZ BALORAGARRI DEN DOKUMENTAZIOA" titulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:

1.- Memoria Teknikoa: Enpresa lizitatzaileek eman beharreko zerbitzu mota bakoitzari buruz banakako azterketa (klausula teknikoen agirian aipatutako guztiak) deskribatzen duen memoria teknikoa aurkeztu beharko du, Plegu honen 8 klausulako B) puntuan ezarritako irizpideen arabera eta ezartzen den aipatu beharreko gutxienekoa adieraziz:

- Zerbitzuaren xedeari erantzungo dion erreferentzia-eredu teorikoa:
- Nerabezaroan arrisku- edo zaurgarritasun-egoerak garaiz detektatzeko proposamena.
- Diagnostikoaren, esku-hartzearen eta ebaluazioaren faseen proposamena.
- Laneko metodologia, interbentzioan baliatuko diren lanabesak eta adierazleak.
- Proposatutako ebaluazio eredua.
- Gogobetetze-galdetegien ereduak, familiei eta sareko lanean parte hartzen duten profesionalei zuzendutako zerbitzua baloratzeko.

Aurkezten den gehieneko dokumentazioa (azalak edo aurkibideak kontuan hartu gabe), 30 orritakoa izango da, DIN A-4 formatuan eta marjina hauek errespetatuz:

- Goikoa eta behekoa: 2,5 cm goian; 2 cm behean.
- Ezker-eskuinekoa: ezkerrekoa 2,5 cm; eskuinekoa 1,5 cm.
- Letra mota eta neurria: Arial edo Times New Roman 11.
- Lerroartea: 15 puntu

Agiri honetan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо. Gehieneko azalera gaindituz gero, edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

Eta eskaintza hobeto ezagutzeko beharrezko irizten diren dokumentu guztiak eta proposamena baloratzeko balio duten guztiak, betiere balio-iritzi baten mendean dauden esleitzeko irizpideen arabera, hau da, Plegu honetako **8. Klausulako B)** puntuan ezarritako irizpideen arabera.

Irizpide hauen batuketaren balorazioan (memoria teknikoa) gutxienez 25 puntu lortzea beharrezkoa izango da lizitazioan jarraitzeko.

** Artxibo elektroniko honetan ezingo da agertu beste gutun-azalean (eskaintza ekonomikoa eta gainerako irizpide automatikoei dagokiena) joan beharko lukeen daturik, ondorioa lizitaziotik kanpo gelditzea izango da eta ez da irekiko "C" artxibo elektronikoa.*

"C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA" titulua izango du, eta honako dokumentu hau sartuko da bertan:

1.- Plegu honen amaiera jasotako **Proposamen Eredua** (Baldintza plegu honen I Eranskina) behar bezala beteta.

** Lizitatzaileek, euren eskaintzetan pertsonaleko gastuei dagokienean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Esku Hartze Sozialari buruzko Lan hitzarmena ez badute kontuan hartzen, baztertuak izan daitezke arduragabeko beherapenean daudelako, zerbitzuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzen ez dutelako.*

***Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

**** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

***** Artxibo honetan, inola ere ez da sartu behar memoria teknikoa edo beste edozein datu, adjudikazio irizpideei dagozkienak, haren balorazioa dagoenean balio irizpide baten mende, "B" artxibo elektronikoan sartu behar dira eta. Datu horietako edozein sartuz gero "C" artxiboa elektronikoan, ez dira baloratuko agiriok; hortaz, bakarrik emango zaizkio adjudikazio irizpideen puntuak, zenbatu daitezkeenak era automatikoan.*

12. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren Kontratazio-Mahai iraunkorraren laguntza izango du. Honen kideen izendapena 2019ko uztailaren 3an egindako Udalbatzarrean onartu zen. Mahaia osatzen duten kideen izendapen nominala Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2019ko uztailaren 8an eta baita Kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus).

Gainera, Mahaiak hala eskatuz gero Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

2.- Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOAN aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Lizitatzaileek aurreko klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko dituzte aurkeztutako artxiboan.

Mahaiak konpondu litezkeen akatsak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, hiru eguneko epea emango du, lizitatzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira.

3.- Kontratazio Mahaiak Oiartzungo Udaletxeko bilkura-gelan irekiko ditu proposamenak (Done Eztebe plaza 1) eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren.

Ekitaldi horretan, onartutzat eman diren eskaintzen "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA bakarrik irekiko da (balio judizio bidez baloratuko den dokumentazioa), ekitaldi publikoan.

Hasierako deialdi hau mantentzea nahiz balizko aldaketak argitara emango dira kontratugilearen profilean (www.oiartzun.eus), jakinarazteko egoki iritzitako beste edozein moduren kalterik gabe.

ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio honetan eta Baldintza Agiri honetan aurreikusi den moduan, esleipen irizpide subjektiboak pisu handiagoa izango dute objektiboak baino, horiek horrela, legeak 146.2.a) artikuluan gutxienez 3 pertsonez osatutako eta kontratuaren objektuaren araberako kualifikazio egokia duen adituen batzorde bat osatzera behartzen du balio iritzi baten bidez baloratu beharreko irizpideak, hots, subjektiboak aztertu eta baloratu ditzan, prozeduraren neutraltasuna bermatuz.

4.- "B" artxibo elektronikoan jasotako atalei dagokien eskaintza baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzen "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA (eskaintza ekonomikoa eta automatikoki baloratu beharreko irizpideak) irekiko du, hori ere ekitaldi publikoan.

Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratugilearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), jakinarazteko egoki iritzitako beste edozein moduren kalterik gabe.

5.- Azkenik, Mahaiak kontratazio-organoari aurkeztuko dio esleipen-proposamena.

6.- Kontratazio Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izan ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak baloratzeko beharrezko direla iritzitako txosten teknikoak eta juridikoak.

13. KONTRATUAREN ESLEIPENA

13.1.- **Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.**

Eskaintzak baloratutakoan, Kontratazio mahaiak Kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, aurreko klausulan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezioa erlazio hoberena duen eskaintza bereizita.

13.2.- **Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena.**

13.2.1.- Esleipen-proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLen 145 artikuluaren ezarritakoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna Osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: Ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, kontratatzeko daukan enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko honako dokumentazioa aurkeztuz:

Sailkaturik ez badago, edo ez bada beharrezkoa, bere kaudimena egiaztatu beharko du, plegu honetako 10.6 Klausulan ezarritako moduan.

f) KAUDIMEN GEHIGARRIA: Kontratua betetzeko zer bitarteko (giza baliabide) **erabiltzeko edo adskribatzeko eskaintza egiterakoan hartu duen konpromisoaren baitan** (SPKLren 76.2 artikuluaren arabera), horiek badituela egiaztatzeko dokumentuak, plegu honetako 10. klausulan zehaztutako profil eta zehaztapenak betez.

g) **Lan taldearen prestakuntza (esleipen irizpide objektiboa).** Esleipendun gisa proposatutako enpresak, bere eskaintzan, zerbitzura atxikituko dituen langileak adin txikikoen eta haren familien esku hartzean genero ikuspegitik edo/eta aniztasunaren ikuspegitik formazioa izango dutela eskaini badute, horiek badituztela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

h) **Behin betiko bermea** eratu denaren egiaztapena.

13.2.2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen

eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita gelditukо da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

13.2.3.- Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

Aurreko dokumentu guztiak **jatorrizkoak edo kopia kautoak edo konpultsatuak aurkeztu beharko dira.*

*** **Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan**, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.*

Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak. Nolanahi ere, bateratzeko, enpresa guztiek -enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere SPKLren 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituz gero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du.

13.2.4.- Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3 ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) exijituko zaio zehapen modura. Kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

13.3.- **Esleipena**

1.- Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

2.- Esleipenak arrazoitua izan behar du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

3.- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLaren 153.3. artikuluaren arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

4.- Kontratuaren esleipena honako epe maximoan egingo da:15 egun natural, esleitzeko irizpide bakarra prezioa bada, edo bi hilabete, beste irizpiderik ezarri bada, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

5.- Kontratua Aldi Baterako Enpresen Elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABEE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta Elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.

14. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta izangaiei bidali ondorengo hamabost egun baliodun baino lehenago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango-du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioa etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, kontratua formalizatu dezan, ez bost eguneko epea baino luzeagoan, errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik kontatuta. Era berean jokatuko da, errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak etendura kentzen duenean.

Kontratua formalizatu ondoren, Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

15. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

3.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak ere. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo SPKLen 193. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

4.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, SPKLen 197. artikuluaren arabera.

5.- Era berean, jarduerarekin hasi baino lehen, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak beteko dituzten langileei dagokienez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela ere, hori guztia urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan jasotzen dena kontuan hartuz, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dekretuan, hain zuzen.

6.- Kontratua gauzatzerakoan, agiri honetan dauden baldintzak eta Baldintza Teknikoaren Agirian daudenak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Oiartzungo Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

7.- Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua betetzean ordena ona edo behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

8.- Giza baliabide eta makinaria:

Kontratistak bere eskaintzan eskainitako giza baliabideak eta baliabide materialak, hobekuntzak eta proposamenak, kontratuaren exekuziora atxikitzera behartua egongo da.

16. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202 artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bezela ezartzen dira honakoak:

16.1. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN LAN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Kontratista behartua dago betetzen lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, Hitzarmen Kolektiboenak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango horiek betetzen ez baditu.

2.- Enpresa kontratistak bete beharko ditu langileen lan eta soldata baldintzak, aplikagarria den Sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren arabera.

Aplikatzen bada beste enpresa hitzarmen edo itun bat, hobetzen duena aipatutako hitzarmena, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

3.- Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen badiote informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek funtsezko betebeharraren izaera du. Ondorioz, klausula hori nola edo hala ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.

16.2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ:

1.- Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko betebeharrak:

- Dokumentu, publizitate, irudi edo materialetan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duten irudirik ere. Halaber, emakumeen irudiari dagokionez, balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna, eta rolen eta genero identitateen aniztasuna.

- Jarduerak egiten direnean, zeharka emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera berdintasuna bultzatzea.

- Bereiztekoak diren jardueretan sexuaren arabera bereizitako informazioa sortzea eta erabiltzea.

  Baztertuta geratuko dira sexua dela-eta, zehapena jaso duten erakundeak, zehazki, zehapenean ezartzen den denboraldian.

2.- Kultur aniztasunaren arloko betebeharrak:

- Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du prozesuko jarduera guzti-guztien parte-hartzea errespetuzkoa dela, eta kontuan hartzen direla jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala eta sexuen aniztasuna. Horrenbestez, jarduerak eta hizkuntza modu inklusiboan egokitu behar izango dira, aukera berdintasuna eta baldintza berak izate aldera.
- Enpresa esleipendunak ez ditu hizkuntza eta irudi estereotipatu, arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileak erabiliko, ez prozesuan ez materialetan eta ez gainerako euskarrietan. Aniztasunaren ikuspuntua zeharka txertatu beharko da (jatorri aniztasuna, sexu aniztasuna eta aniztasun funtzionala).

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek zehapen larriaren izaera du. Ondorioz, honen edozein ez betetzea 24. klausulan jasotako zehapen arrazoia da.

16.3. KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO INGURUMEN BALDINTZAK

1.- Paper-kontsumoa murrizteko, zerbitzu kontratuaren iraunaldian sortutako laneko dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren bidez, edo, bestela, USB edo antzeko euskarriren batean, betiere birgragabarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.

2.- Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratugileak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), esleipendunak hau egin behar du:

- Kontratugilearekin adostu dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, ez badu kontratugileak zuzenean eskatu [kontratua gauzatu ahala egin daiteke, edo egoera gehienetarako irizpideak finkatuz kontratuaren hasieran].

- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin soberan geratu.

- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.

- Agiri inprimatuak eskatzen badira, erabili behar diren paper birziklatuen edo ez birziklatuen dokumentazioa aurkeztu (izena, marka, ezaugarri teknikoak eta ingurumen-ezaugarriak) kontratuaren hasieran, kontratugileak onar dezan. Kontratuaren iraunaldiak aldaketarik izanez gero, horien berri eman egin behar da, eta kontratugileak, onartu.

- Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek zehapen larriaren izaera du. Ondorioz, honen edozein ez betetzea 24. klausulan jasotako zehapen arrazoia da.

16.4. KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Oiartzungo Udalean hizkuntzen erabilerari buruz indarrean dagoen araudia honako hau da: Oiartzunen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza (1993an Osoko Bilkurak onartua) eta Oiartzungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

(2013ko abenduaren 17an onartu zuen Osoko Bilkurak).

2.- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileak (Udalarekin eta familiekin harreman izango duten enpresaren arduradunak, psikologoak, terapeutak eta hezitzaileak) administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko ditu, hizkuntza-gaitasunei dagokienez; horregatik, kontratuak herritarrekin, zein udalarekin, ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, langileak, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila daukala (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko da.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak (udalarekin eta familiarekin harremana izango duten enpresaren arduradunak, psikologoak, terapeutak eta hezitzaileak) badutela eskatutako hizkuntza-gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horri ere eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko du.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Bestalde, enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (besteak beste, kontratua, faktura, albaran, txosten, bilera eta ahozko zein idatzizko kontsultak) administrazioarekin lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi honek funtsezko betebeharraren izaera du. Ondorioz, klausula hori nola edo hala ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.

17. NORBERAREN DATUAK

Enpresa esleipendunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Baldin, enpresa kontratistak edo subkontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen

edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hitzarmenaren helburua betetzeko bakarbakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.
4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa esleipendunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

b) Esleipendunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.

c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, esleipendunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

Enpresa kontratistak edo azpi kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako

ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

18. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Indarrean dagoen legeriak informazio publikoa eskuratzeari buruz esaten duena errespetatuz eta SPKLak esleipenearen publizitateari buruz eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena kaltetu gabe, Oiartzungo Udalak ezin izango du beren eskaintza aurkezteko unean, sekretu tekniko edo komertzialak direla arrazoituz enpresariek konfidentzialtzat ematen dituzten informazioak zabaldu, ez eta, eskaintzen alderdi konfidentzialak edo eta lehiaketa-prozedura honetan edo beste batzuetan konpetentzia faltsutzeko erabil daitekeen ezein informazio ere.

Oiartzungo Udalaren konfidentzialtasun betebeharra berriz, ezin izango da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ez eta lizitazio prozesuan zehar zuzenean edo zeharka sortzen den informe nahiz dokumentazio osora zabaldu ere. Zabalkunde mugatua duten dokumentuei bakarrik eragingo die, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuei.

Konfidentzialtasun betebeharrak ez dio konfidentzialak ez diren bururutako kontratuen zatien zabaltzeari eragingo, besteak beste, likidazioa edo kontratatu diren enpresak eta azpikontratatutakoak, bere kasuan, eta kasu guztietan eskaintzaren alderdi esentzialak eta ondoren egiten diren kontratuaren aldaketak, beti ere Datu Pertsonalen Babesari buruzko legeria errespetatuz, aurreko klausulan adierazten den moduan.

Plegu edo kontratuan konfidentzialtzat eman den informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat hartu behar dena, eta esleipendunak kontratuaren exekuzioaren ondorioz ezagutzen duena, errespetatu egin beharko du. Betebehar honek informazioa ezagutu eta hogeita bost urtez iraungo du.

19. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da kontratua-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

20. KONTRATUAREN ALDAKETAK

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 205. Artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharreko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

2.- Prezio unitarioak dituzten kontratuen kasuan, SPKLren 309 artikuluaren arabera, ez da aldaketatzat joko prestazioa behar bezala aurrera eramaten den bitartean kontratuan aurreikusitakoen gainetik egiaz gauzatu diren unitateen kopuruan bakarrik gertatzen denean aldaketa hori, eta haiek kitapenean jaso ahal izango dira, baldin eta kontratuaren prezioaren %10 baino gastu igoera handiagoa eragiten ez badute.

3.- Aurreikusitako aldaketak: SPKLren 204. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohartarazten da kontratuak hasierako prezioaren (bi urteko kontratua) %20rainoko aldaketak izan ditzakeela, arrazoi hauengatik:

Baldin eta kontratua indarrean dagoen bitartean beharrak handiagoak edo txikiagoak badira hasieran aurreikusten direnak baino, zerbitzu eskaintza areagotu edo murriztu egiten delako, kontratuaren xedearekiko (zehazki, Baldintza Teknikoaren Agiriak arautzen duen zerbitzuaren aldean: udalerriaren eta Udalaren behar posibleen arabera; esku hartu beharreko familia kopuruaren arabera, edota hauek behar dituzten programen luzapena eta edukia aldatzeko beharra dagoenean).

Aldaketek ezin dute kontratuan aurreikusi gabe dauden banakako prezioak ezartzea ekarri. Ondorioz, unitateko prezioa kontratuaren esleipenduna izan den eskaintzan egindako beherapenaren arabera kalkulatuko da.

Kasu horietan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

21. KONTRATISTAREN ONDORENGOA IZATEA

1.- Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin.

Kasu horietan ondorengoak bere gain hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira.

2.- Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa Administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko kaudimen-baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua.

22. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 214. artikuluan jasotako ondorengo mugekin eta baldintzekin:

a) Kontratazio-organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.

b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.

c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.

d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

3.- Lagapen- hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

23. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta hilabeteko epean, kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanez.

Kontratua erabat betetzat joko da enpresa kontratistak, kontratuaren baldintzen arabera bete badu kontratuaren prestazio guztiak eta Oiartzungo Udalaren gogobetetzeari jarraiki.

Oiartzungo Udalak zehaztuko du kontratistak egikaritutako prestazioa, berau gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioetara egokitzen den, eta, hala ez balitz, kontratatutako prestazioak egitea eta harrera dela-eta antzemandako akatsak zuzentzea errekerituz.

Egindako lanak kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo akatsen ondorioz kontrataturiko prestaziora egokitzen ez badira, Oiartzungo Udalak 24. klausulan aurreikusitako zigorrak eta kalte-galeren kalte-ordainak eskatu ahal izango ditu.

Edozein kasuetan ere, URTE BETEKO epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena.

Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats edo ikusiezinezko akats guztiak.

Administrazioak inongo eragozpenik jarri gabe epea igarotzen bada, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

24. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

1.- Arau hausteak.

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

a) *Arau hauste oso larriak* izango dira honako hauek:

-Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.
-Udalaren baimen espresurik gabe, zerbitzuak, osorik edo neurri batean, beste bati utzi, alokatu edo eskualdatzea.
-Baliabide nahikoak adskribitzeko exijitu diren konpromisoak ez betetzea.
-Pleguan ezarritako baldintzak eta obligazioak ez betetzea, kalte larria eragin duenean.
-Esleitzeko irizpideei lotuta dauden eskaintzaren ezaugarriak ez betetzea.
-Lanak argi eta garbi gaizki edo modu irregularrean egitea.
-Prestazioaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emaniko aginduak ez betetzea, lanaren garapenari dagokionez, eta oro har, lan horien prestazioa erregulatzen duten arauak ez betetzea.
-Kontratatutako pertsonen gorabeherak zerbitzuaren jasotzaileekin eta herritarrekin orokorki, bai tratu desegokia eman delako eta bai lana behar bezala egin ez delako.

-Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) *Arau hauste larriak* izango dira:

-Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.
-Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo obligazio, oso larritzat kalifikatu gabe dagoena, ez betetzea.
-Kontratua gauzatzeko dauden Ingurumen eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna baldintza bereziak ez betetzea.
-Kontrataturiko langileen eskura Udalak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak behar bezala ez erabiltzea.
-Behin eta berriz akats arinak egitea.

c) Arau hauste *arinak* izango dira aurreko horietan aurreikusi ez diren gainerako guztiak eta, nolabait ere, baldintza plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larririk eragiten ez badute.

2. Zehapenak.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Oso arau hauste larriengatik: kontratuaren estimatutako urteko prezioaren %5etik %10era, BEZ gabe
b) Arau hauste larriengatik: kontratuaren estimatutako urteko prezioaren %1etik %5era, BEZ gabe
c) Arau hauste arinengatik: kontratuaren estimatutako urteko prezioaren %1era arte, BEZ gabe

Hala eta guztiz ere, *oso arau hauste larriak* direnean, Udalak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen.

3. Eskumena eta ordainketa

Zehapen hauek, Kontratuaren erantzuleak proposatuta, Alkatetza-Lehendakaritzak emaniko Ebazpenaren arabera jarriko dira, arau-hauste arinak eta larriak direnean, eta, oso arau-hauste larriak direnean, kontratazio organoak jarriko ditu, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren. Kasu horretan kontratistari audientzia emango zaio, eta hala badagokio, abal-emaileari.

Zehapen hauek kontratugileari egin beharreko ordainketetatik kenketa eginez ordainduko dira edo bermetik kenduaz, ordainketetatik kendu ezin direnean.

4.- Kalte ordainen erreklamazioa:

Bermea galtzeak edo zigorren zenbatekoa ordaintzeak ez du eragozten kontratistaren berandutzak edo berari egotzi dagokiokeen beste arrazoiren batengatik eragindako kalte eta galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea.

25. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratuaren epea bukatzen denean edo suntsitzean iraungituko da kontratua.

Epea bete delako kontratua iraungi dela ulertuko da, zehaztutako epea igaro denean.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLen 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuetarako jasotakoak.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen den arabera.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako kontratua gauzatzeko nahitaezko betebeharren bat ez betetzea.

26. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

III. <u>IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA</u>

27. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak aurreikusitakoaren arabera.

Administrazio-kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria.

- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

  Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duena (aurrerantzean, SPKL); eta honako hau izango da arauzko xedapena: 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, SPKL partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide Pribatuaren arauak Zuzenbide osagarri gisa aplikatuko dira kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betetzeak eta iraungitzeak sor ditzaketen arazoak konpontzeko, aurreko paragrafoan aipaturiko xedapenen bidez konpondu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

28. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- SPKLen 44. artikuluan arautzen den **Kontratazio alorreko errekurtso berezia** aplikagarri izango zaie, aukerako izaeraz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, honakoei:

a) Lizitazio-iragarkiei, kontratazio hau arautzen duten dokumentuei eta pleguei.

b) Prozedura honetako izapidetze egintzei, betiere horiek zuzenean edo zeharka esleipenean erabakitzen badute, prozedura jarraitu ezina eragiten badute edo eskubide edo interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute.

c) Esleipen erabakiei.

d) SPKLen 204. eta 205. artikuluetan xedaturikoa ez betetzean oinarrituriko kontratu aldaketei, aldaketaren ondorioz esleipen berria egin behar zela ulertzeagatik

2.- Errekurtso hori, hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, lizitazio iragarkia edo errekurritutako egintza kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

Aurrekoa gorabehera:

- Esleipen prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka edo publizitaterik gabeko prozedura aplikatzearen ondoriozko egintza baten aurka jartzen denean, balizko arau-haustearen berri izan den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.

- Kontratuaren esleipenaren aurka jartzen denean, SPKLen 15. Xedapen Gehigarriaren arabera jakinarazten den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen epea.

3.- Errekurtsoa jartzeko idatzia Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak jasotako lekuetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, kontratazio organoaren erregistroan edo Euskal Autonomi Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarenean aurkeztu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan berariaz adierazitakoak ez beste erregistroetan aurkeztutako idatziak berehala eta ahalik eta azkarren jakinarazi behar zaizkio Auzitegiari.

4.- Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa bakarrik jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Interesatuek gainerako tramite-egintzen aurka alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

6.-. Klausula honetako lehen atalean jaso gabeko kontratazio honi buruzko gainerako ebazpenei urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean arautzen den **administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa** jarri ahal izango zaie, aukerako izaeraz, edo, bestela, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa

arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak arautzen duen **administrazioarekiko auzi errekurtsoaren** xede izan ahal dira.

29. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK.

SPKLen 140.1.4. artikuluan eta 15. Xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak DEUC-ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Oiartzunen, 2021eko otsailaren 3an

OIARTZUNGO
UDALA

I. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera) hiria ....., helbidea:....., etab.), eta **OIARTZUNGO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAREN** kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

ADIERAZTEN DU:

I.-Ezagutzen dituela Baldintza Teknikoen Agiria bere edukiarekin, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa ere, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II. Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako Baldintza Agirian zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:..……..(…..Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan

baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela zehaztutako

1.- Banakako psikologo / terapeuta lanak egiteko, …….....**euro / orduko osoko prezioan (%10 BEZa barne)**, honela banakatuta:

a) Prezioa: ……..…… euro / orduko.
b) BEZ aplikagarria (%10): ……..…… euro / orduko.

2.- Familiako psikologo / terapeuta lanak egiteko, …….....**euro / orduko osoko prezioan (%10 BEZa barne)**, honela banakatuta:

a) Prezioa: ……..…… euro / orduko.
b) BEZ aplikagarria (%10): ……..…… euro / orduko.

3.- Haur hezitzailearen esku hartzea eta koordinazio bilera lanak egiteko, …….....**euro / orduko osoko prezioan (%10 BEZa barne)**, honela banakatuta:

a) Prezioa: ……..…… euro / orduko.
b) BEZ aplikagarria (%10): ……..…… euro / orduko.

Esandako prezioan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor: zergak, gastuak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

VII.- **Lantaldearen prestakuntzari** dagokienez, proposamena hurrengoa dela:

Gutxienez, lantaldeko batek:

Gutxienez 50 orduko prestakuntza izango du adin txikikoen eta haren familien esku-hartzean genero ikuspegitik : **BAI / EZ**
Gutxienez 50 orduko prestakuntza izango du adin txikikoen eta haren familien esku-hartzean aniztasunaren ikuspegitik : **BAI /EZ**

*Atal hau esleipendun gisa proposatzen den enpresak bakarrik egiaztatu beharko du udalak errekerimendua egiten dion momentuan.

.....en, 2021eko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

OIARTZUNGO
UDALA

II. ERANSKINA: BITARTEKO PERTSONALAK DERRIGORREZ ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ARDURAPEKO ADIERAZPENA

"..... jaunak/andreak, NA ..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo .....-(r)en izenean, IFK/NA ....., hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAren** kontratazioa arautuko duen Baldintza Agiria eta gainerako baldintzak ezagututa

Talde teknikoa jarraian agertzen diren lanpostuek osatuko dute, gutxienez:

NERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

1.- Aipatutako kontratua gauzatzeko honako giza baliabide bitarteko hauek atxikitzeko konpromisoa hartzen dudala:

1.1.- **Psikologo bat,** lan terapeutikoaz gain, taldea koordinatzen duena. Bete beharreko baldintzak:

- Psikologiako lizentziatura edo gradua, eta Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatea.
- Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia familian esku hartzen.

1.2.- **Hezitzaile bat.** Bete beharreko baldintzak:

- Gizarte-hezkuntzako, gizarte-laneko edo antzeko beste titulazio bateko diplomatura edo gradua
- Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, heziketa lanetan gutxienez urte beteko esperientzia izan behar du.

2.- **Honako baldintza hauek beteko dituzte kontratura atxikituko diren langileak:**

- **Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa** (Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita egongo diren eta adingabeekin harremanetan egongo diren heinean, sexu-delituei buruzko zigor-aurrekaririk ez dute izango eta kontratu honetan

esleipendun izatera iritsiko banintz berau egiaztatzeko ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko ditut.

- **Langile horiek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila** izango dute, klausula administratiboen pleguan jasotzen denari jarraiki (hizkuntza irizpideetan 16. atalean). Kontratu honetan esleipenduna izatera iritsiko banintz, hizkuntza gaitasun maila egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztuko dut.

3.- Aipatutako kontratuaren Psikoterapiako saioak Oiartzungo udal-bulegotan emateko konpromisua hartzen dut; eta esku-hartze sozio-hezitzailerako saioak esku-hartzen ari den familiaren etxebizitzan egiteko konpromisua hartzen dut, edo hala badagokio, kalean edo une bakoitzean egokiena den lekuan, esku-hartzearen helburuei jarraiki.

.....en, 2021eko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA

III. ERANSKINA

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.
   1. 1. Baldintza administratiboak:
      a) Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
         - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
         - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
         - Nortasun agiri nazional elektronikoa
         - Camerfirma (entitatea, herritarra).

      b) Egoera hauetako batean egotea:
         - Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
         - Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
         - Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

   1. 2. Baldintza Teknikoak:
      Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
      http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

   1. 3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.

      Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da. Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik
      froga bat egitea.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak DEUC-ean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek DEUC agirian zehaztutako helbide elektro